



**LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EAE-KO LAN-ARLOKO HITZARMEN  
ETA AKORDIO KOLEKTIBOAK ERREGISTRATU ETA GORDETZEA ARAUTZEN DUEN  
DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA**

## **Aurrekariak**

LEHENENGOA.- 2022ko irailaren 2an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak idazpuruan aipatutako Dekretu-proiektuaren testua bidali zion LHKri, arlo soziolaboralean aholkularitza emateko duen eskumena betez, zegokion txostena egin zezan, hain zuzen ere aintzat hartuta zer ezartzen den Lan Harremanen Kontseilua arautzen duen legearen 3.1.b) artikuluan eta lege hori garatzeko 434/2013 Dekretuaren 2.1. artikuluan.

BIGARRENA.- Dekretu-proiektuaren testua, bere zioen azalpenarekin bat etorritik, Estatuko legediak berdintasun-planen arloan egindako azken arau-aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan egokitzeko modu gisa planteatzen da, hain zuzen ere, plan horiek erregistratzeko betebeharrari lotuta.

Hala ere, betebeharrak ezartzen den testuinguru arauemaileak, hasiera batean izaera formala baino ez duenak, une honetan hutsune handiak ditu, Estatuko legediak ebatzi ez dituenak, eta txosten honetan jorratzen den Dekretu-proiektuak ere ez die horiei heltzen.

## **Dekretu-proiektuaren azterketa eta balorazio teknikoa**

LEHENENGOA.- Berdintasun-planak erregistratzeko betebeharra 6/2019 Lege Errege Dekretuan sartu zen; ondoren, 901/2020 Lege Errege Dekretuak garatu zuen. Hain zuzen ere, lan-arloko hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistroari buruzko 713/2010 Errege Dekretua hein batean aldatzen duen azken arau horrek eskatzen du, funtsezko puntu batetik, betebeharrak horren irismena. Arau horren baitan sartzen dira:

a) berdintasunerako plan guztiak, nahitaezkoak zein borondatezkoak izan.

b) bai Langileen Legezko Ordezkaritzarekin adostutako planak, bai adostasunik egon ezean enpresak bere kabuz ezartzen dituenak.

LHK-k txostena egin dezan bidalitako dekretu-proiektuak ez du eraginik erregimen substantibo horretan, EAEko lan-arloko eskumen exekutibo hutsak direla eta.

BIGARRENA.-901/2020 Errege Dekretuarekin bat, erregistro hau hitzarmen kolektiboaren eta lan-akordioaren erregistroa eta gordailua



arautzen dituen erregistro bera izango da (713/2011 ED), orain, berdintasun-planetara ere zabaldu dena.

HIRUGARRENA.- Hala ere, 901/2020 Errege Dekretuak berariaz onartzen du 11.2 artikuluan erregistro autonomikoak daudela, hala nola EAEkoa, zeinak urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren bidez berea sortu eta arautu zuen. Horrekin bat, Estatuko arauak adierazten du bertan jasotako aurreikuspenak autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan sortutako erregistroen kalterik gabe egiten direla.

LAUGARRENA.- Testuinguru horretan lantzen da LHK-k txostena egin dezan bidali den dekretu-proiektua. Haren edukian funtsean terminologia-aldaketak baino ez dira egin, lan-hitzarmen eta lan-akordioekin batera berdintasun-planetan inskribatzeko, bai eta erregistroa 2011tik aurrera Administrazio elektronikoaren erabilerari lotuta sortutako araudira egokitzeko beste aldaketaren bat ere.

BOSGARRENA.- Dekretu-proiektu honen benetako irismena, legearen arabera, hauxe izango da, ezbairik gabe: proposamena egin duen sailak bere jarduera-marjina aztertu beharko du alde aurretik, bere zioen azalpenean aipatzen dituen bi eskumen-tituluei dagokienez (lan-legeria betearaztea eta EAEko zerbitzuen autoantolaketa).

Edonola ere, eskumen-tarte horren balorazioa eta finkapena txosten tekniko honen izaera eta berezko espazioa gainditzen dituen gaia da. Izan ere, txostena LHK-ko kideek beren aholku-eskumenez baliatzea erraztera bideratuta dago soilik, bere lege arautzailean (4/2012) zehaztutako ingeradekin. Lege horrek ez dio analisi tekniko-juridikoaren funtzioa ematen; balorazio bat da, Gobernuaren arau-mailako ekimenena, politika- edo aukera-ikuspegitik.

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordea 2022ko irailaren 29an bildu ondoren, batzordekideek


### **HAUXE ADIERAZTEN DUTE:**

CCOOk izendatutako kidea ados dago Kontseiluko zerbitzuek egindako txosten teknikoarekin, eta ez du beharrezkotzat jotzen dekretu-proiektuaren eduki zehatzari buruzko gogoeta espezifikorik egitea; izan ere, indarrean dagoen araudia formalki egokitzea da horren helbruu bakarra, berdintasun-planak Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroan sartzeko eta inskribatzeko.

UGTren aldetik, eta CCOOko ordezkariak adierazitakoaren antzera, bere ordezkariak adierazi du ados dagoela txosten teknikoarekin eta LHK-k txostena egin dezan bidalitako Dekretu-proiektuarekin, eta

**Lan Harremanen Kontseiluaren txostena,  
EAEko lan-arloko hitzarmen eta akordio  
kolektiboak erregistratu eta gordetzea  
arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu-  
proiektuari buruzkoa**

LAN  
HARREMANEN  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
RELACIONES  
LABORALES



erregelamendu-arauaren proiektuaren xedeari eta irismenari lotuta CCOO sindikatuko kideak egindako adierazpena sinatu du.

Bestalde, LABek izendatutako kideak uste du LHKren txosten teknikoak ez duela sakontzen Lan eta Enplegu Sailaren ekimen arautzailearen oinarrian dagoen sakoneko arazoan, berdintasun-planak erregistratzeko betebeharraren erregulazio substantiboak bere ustez dituen zalantza eta hutsuneen ikuspuntutik. Hala eta guztiz ere, eta arau-proiektuak eragin txikia duenez (edo batere eraginik ez), ez du beharrezkotzat jotzen haren edukiari buruzko alegazio partikularrik egitea.

Confebaskek izendatutako Txostenen Batzordeko kideak uste du, bestalde, berdintasun-planen buruzko legeria asko garatu dela azken urteotan. Hala eta guztiz ere, edo, agian, arau-ugaritasun horren ondorioz, berdintasun-planen eguneroko erregistroan hutsuneak eta gabezia ugari daude, ohiko operadoreek oso ondo ezagutzen dituztenak, eta horiek gainditzea komeniko litzateke, beharrezko diren arau- edo instrukzio-neurriak hartuz.

Testuinguru horretan, eta Dekretuaren aldaketa bati (Gobernu Kontseiluak onartu beharrekoa) zor zaion errespetu handienarekin, harrigarria da planteatu den edukia: aldaketa nominal hutsa, “berdintasun-planak” gehituz, “hitzarmenak eta akordioak” dioen tokian. Gaingitu gabeko arazoak ugariak dira, eta bat bera ere ez da konpontzen proposatutako arauarekin. Are gehiago, Dekretu-proiektu horren ekarpena zein den galdetu behar da; izan ere, orain, proposatutako aldaketa nominal horiek egin gabe ere, berdintasun-planak erregistratzen ari dira.

Guztiarekin ere, guk uste dugu egokiena dela Sailak autoantolaketarako dituen eskumenak aztertzea, dauden arazoei erantzuna emateko, eta eskumen hori iristen ez den tokian, hala badagokio, dagokionak erregelamendu-garapena sustatzea.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen dugu bi zuzenketa tekniko sartzea:

- 1. artikulua 3. atalak Langileen Estatutuaren III. Titulua soilik aipatzen du, baina, berdintasun-planen aipamena gehituko baldin bada, 901/2020 Errege Dekretuari ere erreferentzia egin beharko zaio: *“Erregistroaren helburua da Langileen Estatutuaren III. Tituluaren eta 901/2020 EDaren arabera lan hitzarmen eta akordio kolektiboak eta berdintasun-planak inskribatu, erregistratu eta gordailutzea...”*.
- 3. artikulua 2. atalak jatorrizko akats bat errepikatzen du: *“...lan hitzarmen edo akordio kolektiboak edo berdintasun-planak...”* Berez, dekretu osoan bezala, “eta” esan behar luke, “edo” esan beharrean.

**Lan Harremanen Kontseiluaren txostena,  
EAEko lan-arloko hitzarmen eta akordio  
kolektiboak erregistratu eta gordetzea  
arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu-  
proiektuari buruzkoa**

LAN  
HARREMANEN  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
RELACIONES  
LABORALES



## IRIZPENA

Aurreko adierazpenak ikusita, Txostenen Batzordeak aho batez onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta lan-akordio kolektiboen erregistroa eta gordailua arautzen dituen dekretua aldatzeko Dekretu-proiektuari buruz egindako txostena.

Baiezko botoa, edozein modutan ere, Txostenen Batzordeko kide bakoitzaren adierazpen partikularrak ukatu gabe ulertu behar da, txosten honetan, dagokion atalean, adierazi den bezala.

Bilbo, 2022ko irailaren 29a.